

IRABAZI-ITURRIAK

Gure irabazi-iturriak, guk sortutako makina bankuari “salduz” lortuko ditugu. Horretaz gain bankuarekin akordio bat dugunez, Laboral Kutxakoak ez direnak diru estra bat ordaindu beharko dute:

- <5€ ---- dohainik
- 5€-20€ ---- 20 zentimo
- 20€-50€ --- 50 zentimo
- 50€-100€---- 1€
- <100€ ---- 2€
- 100€ tik gorako bileteak ez ditu onartuko

Gainera, herriko udalarekin hitz egingo dugu, izan ere, bertako taberna nahiz dendei denbora aurrezten diegu eta herriari mesede egiten dion zerbitzu bat da; beraz diru laguntza bat eskatuko genieke. Horregatik gure diru sarrerak alde batetik finkoak izango dira, bankuak ordaintzen diguna kontuan hartuta, baina bestetik, geroz eta pertsona gehiagok erabiltzen badute, gure irabaziak handiagoak izango dira, beraz, diru sarrerak igo egingo lirarteke eta alderantziz.

Hasiera batean ez dugu irabazi-iturririk edukiko, baizik eta guztiz kontrakoa, horregatik proiektuarekin hasteko, bakoitzak 1.000€ jarriko ditugu, nahiz eta horretaz gain, mailegu bat eta hainbat diru laguntza eskatu beharko ditugu. Diru laguntzak, alde batetik, bankuak emango dizkigu izan ere gure produktuari hasiera emateko beharrezkoa izango da; eta bestetik herriko udaletxeari diru-laguntza txiki bat eskatzeko asmoa dugu, lehen esan bezala herriko herritarrei eskaintzen diegun zerbitzu berri bat delako. Beraz proiektuari hasiera emateko nahiko diru edukiko dugu, ondoren lortutako diru sarrerekin ordainduko ditugunak.

Produktuaren salmentaren eta erabilgarritasunaren gain, Laboral Kutxarekin daukagun webgunean publizitatea jarriz ere izango ditugu irabazi-iturriak (bisitak... kontuan artuta). Egin ditugun kalkuluen arabera, hilean 30€ izango lirarteke. Askok ez den arren, hasteko eta lehenengo urteetarako oso lagungarria izango zaigun diru laguntza bat izango da.

Gastuak kontuan izan gabe, urteko diru sarrerak kalkulatzeko ezinezkoa da, lehen esan bezala gure bezeroak ez direlako finkoak eta hilabete batean bestean baino bezero gehiago eduki ditzakegulako. Nahiz eta zenbait diru sarrera finko eduki (bankuarena adibidez).



Kalkulatu dugunez, urtean 700.00€ko diru-sarrerak izango ditugu, gastuak kontuan hartu gabe.

